

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

3659

AGINDUA, 2024ko uztailaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez karrerako funtzionario izendatzen baitira izendapena atzeratu zitzaizen izangai hautatuak, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan.

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 21eko Aginduaren bidez hautatutako izangaiak karrerako funtzionario izendatu ziren, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan. Agindu horren III. eranskinean, karrerako funtzionarioen izendapena atzeratu zitzaizen pertsonak agertzen dira, aipatutako aginduen 8.3 eta 8.4 oinarrietan aurreikusitako osasun-azterketan ezin izan zituztelako ebaluatu; kontuan hartuta zerrenda horretako pertsona batzuk mediku-azterketan ebaluatu direla eta gai izan direla, karrerako funtzionario izendatu behar dira.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen 9. oinarrian ezarritakoaren arabera, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Karrerako funtzionario izendatzea Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez iragarritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatuak izan diren hautagaiak, jarraian zerrendatzen direnak. Agindu horren bidez, salbuespenezko prozesu bat iragarri zen, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko, kidego hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak, Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleak, Maisu-maistrak eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoak (desagertzeaz dagoen kidegoa).

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak.

Espezialitatea: Gorputz-hezkuntza.

NAN	Abizenak eta Izena	LEZ
***9938**	Valiño Solana Jorge	72399388 57A2410

Espezialitatea: Alemana.

NAN	Abizenak eta Izena	LEZ
***1485**	Canales Onaindia Ane	72314858 02A2410

2024ko uztailaren 29a, astelehena

Espezialitatea: Ekonomia.

NAN	Abizenak eta Izena	LEZ
***4984**	Aizpurua Mendizabal Irene	44149847 02A2410

Kidegoa: Maisu-maistrak.

Espezialitatea: Lehen hezkuntza.

NAN	Abizenak eta Izena	LEZ
***1900**	Montes Gogeoascoechea Martin	30619007 68A2409
***67374**	Ugarte Querejeta Izaskun	30673740 68A2409

Kidegoa: Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleak.

Espezialitatea: HEO Ingelesa.

NAN	Abizenak eta Izena	LEZ
***4582**	Antolín Sáiz Mercedes	15245829 46A2416

Kidegoa: Lanbide Heziketako Sektore Berezieta Irakasle Espezialistak.

Espezialitatea: Arte Grafikoetako produkzioa.

NAN	Abizenak eta Izena	LEZ
***2217**	Nubla Carazo Marlene	22722172 46A2411

Espezialitatea: Soldadura.

NAN	Abizenak eta Izena	LEZ
***6480**	Zorrilla Ruiz Gorka	30664804 24A2411

Bigarrena.– Hezkuntzako sailburuaren 2024ko otsailaren 20ko Aginduaren hirugarren apartatua aplikatuz (2024-02-28ko EHAA), Agindu honen arabera egindako izendapenek eta jabetza-har-tzeek osasun-azterketa gainditu eta hurrengo hilabeteko 1. egunetik aurrera izango dituzte ondorioak, hau da:

- Jorge Valiño Solana eta Marlene Nubla Carazo: 2024ko ekainaren 1etik aurrera.
- Ane Canales Onaindia, Irene Aizpurua Mendizabal, Martin Montes Gogeoascoechea, Izaskun Ugarte Querejeta, Mercedes Antolín Sáiz eta Gorka Zorrilla Ruiz: 2024ko abuztuaren 1etik aurrera.

2024ko uztailaren 29a, astelehena

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 15a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.